



Haurrei zoriontsu diren galdetuz emango diogu hasiera gaurko saioari.

«Zoriontsuak al zarete? Zerk egiten zaituzte zoriontsu?».

Erantzunak orri batean idazten joaten gaitzke.

Orain, ikus dezagun Jesusek esaten digunaren arabera nola izango garen benetan zoriontsu.

**Paperean dauzkagun zorionbideak irakurtzen joango gara, banan-banan.** Zorionbide bakoitza irakurri ondoren, esan dezatela noiz edo nola betetzen den. «Zerikusirik ba al du zuek esandakoarekin eta orrian idatzitakoarekin?».

Zorionbide guztiak landu ondoren, ikus dezagun **74. orrialdea**. «Zer idatzi duzue? Zer adierazten dute marrazki horiek?».

Goazen **75. orrialdera**. «Nortzuk dauzkagu marrazki horietan?».  
Zakeo, Bartimeo... «Zer gertatu zitzaien?».  
Gogoratzen ez badute, 24. eta 30. orrialdeetara joan, eta pasarteak denen artean irakurri.

Orain, haur bakoitzak pentsa dezala hilabete honetan zehar zer ekintza egingo lukeen:

entzun,  
partekatu,  
lagundu,

harrera egin,  
maitatu,  
bisitatu,

ospatu (familia-meza),  
barkatu,  
kontsolatu...

Bukatzeko, kandela piztu, eta denen artean *Gure Aita* errezatuko dugu.



1. Daukatena pobreekin banatzen dakitenak.
2. Barkatu eta beste aukera bat ematen dakitena.
3. Hegoaldeko senideen sufrimenduarengatik negar egiten dakitenak.
4. Gaur bertan hasi eta mundua aldatu nahi dutenak.
5. Behartsuez errukitu eta beraien alde ahal duten guztia egiten duenak
6. Gauza materialez ez, baizik, maitasunez bihotza beterik daukatenak.
7. Indarkeriari uko eginez, baita jolasean ere, bakea egiten saiatzen direnák
8. Besteei laguntzen saiatzen direnak, inozotzat hartuak izan arren.